

**ERABAKIA, 2021eko azaroaren 4koa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, ZELULEN BIOLOGIA ETA HISTOLOGIA SAILArako F 685 Saileko idazkaria lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.**

## GERTAKARIAK

**Lehenengoa.**- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2021eko urriaren 4ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

**Bigarrena.**-Gerentearen erabakiaren bidez, 2021eko urriaren 27koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

**Hirugarrena.**- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.**- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua).

- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAan argitaratua).

- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA).

- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

**Bigarrena.**- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena hartutako 2021eko urtarrilaren 28ko errektorearen erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAAan), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

**Hirugarrena.**- Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZPko Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2017ko uztailaren 18an hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2017ko irailaren 28ko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2018ko maiatzaren 21eko EHAAan).

**Laugarrena.**- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

## ERABAKI DU

**Lehenengoa:** Deialdi honetako lanpostua zerbitzu betekizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

**Bigarrena.**- Esleipena 2022ko urtarrilaren 1eko ondorio dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2017ko uztailaren 18ko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

**Hirugarrena.**- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

**Laugarrena.**- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaleei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

**Bosgarrena.**- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2021eko azaroaren 4an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2021eko urtarrilaren 28ko erabakia (2021eko otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA





## **I. ERANSKINA ZERBITZU BETERIZUNA**

**2021/10/4**

---

**Esleipenduna:** MOGOLLÓN PLATA, Antonio  
**Lanpostuaren Izena:** Saileko idazkaria  
**Lanaldia:** Arautua  
**Eref.:** F 685  
**Zenbatgarrena:** 39  
**Maila:** 18  
**Taldea:** C/D  
**Eskala:** Administraria/Administrari laguntzailea  
**H.E.:** 2; 2014ko urtarrilaren 31  
**Langunea:** ZELULEN BIOLOGIA ETA HISTOLOGIA SAILA  
**Campus:** BIZKAIA  
**BE:**  
**Ondorio data:** 2022ko urtarrilaren 1a

II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERREDA - ZERBITZU BETEKIZUNA - 2021eko urriaren 4ko DEIALDIA

1891	F 685	Saileko idazkaria		Hor. 39	HE	2.14/D1	ZELULEN BIOLOGIA ETA HISTOLOGIA SAILA																							
ADJ	DEITURAK. Izena		ORD	PUNT. GUZT.	ANTZIN EMANDAKO ZERBITZUAK GUZT.		F = Taldea		L = Taldea		F & L ≠ Talde		EHUn ZERB.		F = Taldea		L = Taldea		F & L ≠ Talde		BESTE ADM.		GRADUA		TITUL.	HIZK.	EUSKARA		ELKAR.	
					Urteak	Punt.	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	G	<	Punt.	Puntos	Puntos	PL	Ptos.	Puntos

a) Deitutako lanpostuaren talde eta eskala bereko karreradun funtzionarioak.

ADJ	MOGOLLON PLATA, ANTONIO JOSE		32,6000	28	12,6	18,00	237	18,00	105	10,00			342	18,00										16	-2	1	1,00		2	0	
	PARDO REY, FERNANDO		32,3500	28	12,6	18,00	237	18,00	102	10,00			339	18,00										16	-2	1	0,75		2	0	